

**ERIO**

Goiz-argitez mitxeletak  
poparean eukan ega  
ta alai ebillen goi-min;  
esi ertz egoan, baiña,  
pozoi kaikuz ornidua,  
aren zain erio gaizkin:  
osto gaiñ eban atzitu,  
kana sar-azoaz gordin.

Odoletan dakust gero,  
ego dardara ostean,  
esi ertzeko mugita.  
Iruntzak laztandu dauan  
bedar izpian gaixoa,  
illik datza mitxeleta.  
Au olan ikusiz ba-dot  
biotzean nik arreta.

Agiraka egin dautsot  
erio il-zaleari.  
Erantzun ordeztuak  
ortzak daustaz erakutsi.  
Txamarraz doa Jantzia,  
ta onan diño gaiztoak:  
«Zomorro naiz gizon, ziur,  
nitzat dira kidekoak».

Edur ikara atean,  
ontzak garrasia otzez,  
guda oiñean itzala...  
Aurtxoak oiñaze kuman,  
ezin estalirik ama  
barruan dauan tamala...  
Erio latz!, uluz dauskuk  
josten izadi azala.

Esi ondoko bedartza!  
Lurpean gorri odola!  
Txakurra zaunka atetik...  
Mamu egalari gaixo:  
goizaren argia yatzu  
luzatzen abar artetik...  
Odol ixuria taup-taup,  
eta urbil lorak itunik.

**SARATSA TA ITXAROPENA**

Eleizara begira zelai deuna, il-iri;  
negar-iturri, bertan saratsa dagiri:  
adar gailliak bera,  
uluak ortzera.

\* \* \*

Iltxinta aldarri baten gaillur goenean...  
Ixillik, urrats-labur, illetari talde;  
samin-gezi lakatza ozka biozpean,  
kutunak ikustera doa itegiralde.  
Aizeño lora gaiñez,  
laban, jostalari,  
lerazko zinkuriñez  
dabil gogaikarri.

Obi asko dakustaz saillez ta zearka;  
ona, ikusle, txiro bat, apaiñik bakoa,  
ama bere aurrean, ler-zori, otoika...  
Oarge, matrail bera, darorko maikoa.  
Illen biztokitik at,  
gero ta miñago,  
karnaba oiñazdun bat  
txintaketan dago.